



**I**bilbide hau, Triano mendietako burdingai zain nagusienak kokaturik zeuden ingurutik burutzen da. Mendi hauek, antzinetik ezagunak (Plinio zabarra erromatarrek, lehenengo mendean “burdinezko mendiak” deitu zien), XIX. bigarren mende erdian eta XX. mende hasieran zehar meatzal ustiakuntza trinkoa jasan zuten, gebien batean lurrazaleko lana izan zelarik.

Ibarduera bonen ondorioak nabariak dira gaur egun ere: meazuloen sarrerak, zulapeak, luerausketak..., paisaiak nabiko berezia den ilargi antzeko itxura duelarik. Meategiak laga eta gero, paisaia zuzpertzeko prozesu geldo batean sartu zen, inguruari edertasun oraindik handiagoa emanez.

Bestalde, burdingai zainak mendigainetan aurkitzen ziren, untziratze edo kontsumo lekuetatik urrun. Obizko meataritzan, burdingaiaren garraiotzea idiek tiratutako gurdiez egiten zen, baina XIX. mendearen amaieran gertatutako ustiakuntza handiaren ondorioz, burdingaia aipatutako lekuetara burbiltzeko, azpiegitura sare zabal bat eraiki zen: errestabideak, aireko garraiokateak, bukaerarik gabeko kateak, trenbideak... 1900. urterako, sistema hauek animalien bidezko trakziokoak ordezkatu zituzten, ateratako burdingaiaren kopurua gehituz (1899. urtea produkzio handienekoa izan zen, Bizkaia osoan 6,5 milioi tona atera zirelarik).

XIX. mende amaieran burdin oxidoen agorpenak, kiskaltze labeen, meagarbitokien eta dekantazio putzuen eraiki beharra ekarri zuen, non burdin karbonatoak eta buztin eta lokatzez nabasiriko burdingaia tratatzen baitzen.

Proposatutako ibilbidean zehar, orain gutxi gora behera mende bat egin ziren zenbait eraikuntzen aztarnak beha daitezke, Bizkaiko garapen industrial eta ekonomikoaren oinarri erabakiorra izandako eskualde baten elementu esanguratsu legez baloratzen eta errespetatzen jakin behar ditugunak.

## IBILBIDEA

“Peñas Negras”eko I.I.Z.tik abiatuz, La Arboledara doan mendi errepidea hartu behar da. Ehun bat metrotara **1**, errepidea utzi eta ezkerretatik mendian bera doan aldi zabala hartuz Trianora zuzendura gara.

Abel esplotazio baten ondotik igaro ondoren, 20 bat minututan, La Arboledatik datorren zementozko errepidera iritsiko gara **2**. Bide honetatik ezkerretara jarraituz, 5 minutu ondoren, Trianora helduko gara.



“Blondies” meatzal hustiagunea



Bodovalle meategia (Gallarta)

Hemendik, ezkerretara doan lehenengo asfaltozko errepidea (auzo honetako garbitokitik ateratzen dena) hartuko dugu (bigarren errepide bat **9** puntutik irteten da) eta 20 minuturen buruan Las Calizas auzora helduko gara.

Gallartaranzko jeitsierari jarraituko diogu, errepidearen eskumaldean industriko meazulo batzuren ondotik pasatuz, eta eskumaldean ere, beste bide bat utzi ondoren, zelai batera iritsiko gara, bertan eskumataitik gorantz doan ondo zehaztutako bide bat **3** hartuko dugu. Las Calizas auzotik honaino, 10 bat minutu emango ditugu.

Beste 10 bat minututan, eta berreskuratzeke bete izan den zabortege gune bat igaro ondoren, bide gurutze batera helduko gara **4**, ezkerreko bidea ustiapienean dirauten harrobi batera doalarik.

Guk aldiz, eskumaldetik jarraituko dugu eta 10 minutu ondoren putzu txiki baten ondotik igaroko gara, gorantza jarraituz 6 minutura beste urtegi bat utziko dugu gure ezkerretara. Berehala, beste bidegurutze bat agertuko zaigu **5**, eskumatatik gorantza jarraitu behar dena. Hemendik, gure eskumatara, agente atmosferiko desberdinek modelatutako orratz itxurako karehaitz berezi batzu ikus ditzakegu, eta ezkerretara, Gallartako Concha/Bodovalle meatzal ustiagune ikaragarriaren zati bat, 1993. urterarte ustiataua. Denbora izanez gero, gaur egun ia erabat agortuta dagoen burdinaria ateratzeko burututako indusketa erraldoia ikustera hurreratzeak merezi du.

Bost minuturen buruan zementozko bide batera **6** helduko gara, eskumatara jarraitu behar duguna metro batzutan, ondoren ezkerretatik gorantza doan bidetara **7** jarraitzeko lagako dugu.

Hamar minutuko igoera ondoren, bi putzu dauden landa batera helduko gara **8**. Aurrez aurre jarraituko dugu igoera eta beste 10 minututan Trianora doan zementozko bidera irtengo gara **9** (eskumaldean, Las Calizas auzora doan beste asfaltozko errepide bat ateratzen da).

Ezkerralderantz 5 minutuz jarraituz gero, Trianoko urtegiara helduko gara **10**, bere urbazterean bi meatzal barrakoi daudelarik.

Urtegia igarota, errepidea utzi eta ezkerretatik Burzakoraino hamar minututan eramango gaituen aldaia hartuko dugu. Tarte honetan, antzineko bagoneta bideen langak ikus daitezke lurrian, eta ezkerretara geratzen den ibarbidetik errestabide garrantzitsuenetariko bat jeisten zen, Orconera konpaniarena, hain zuzen ere.

Bideari jarraituz, 5 minututan, La Arboleda eta Larraineta lotzen dituen errepidearen azpitik igarotzen den tunel batera helduko gara **11**. Berau igaro ondoren, La Arboledako meatzal gune ezagunenean sartuko gara, hau da, lakuen alderdira.

Aldaitik zuzen jarraituko dugu, eskumaldean "Ostion" izeneko lakua utzirik.



### Trianoko meatzal barrakoiak

Hauxe, lurpeko urak azaleratzean eta antzineko meategi bat urgaineztatzean sortu zen.

Hamar minuturen buruan bidegurutze batera iritsiko gara **12**. Zuzen jarraituz gero antzineko beste meategi batera jeitsi gaitzake, "Blondies" izenarekin ezaguna, hau ere, urez beteta dagoena. Ezkerreko bidea hartuz gero, ordea, bigarren bidegurutze batera helduko gara, bertatik eskumatara eraikuntza batzu ageri dira. Bertara hurbiltzeak eta troka eskergetatik zehar igotzen den errestabidea ikustek merezi du. Inguru honetan, meazulo batzu ere, ikus daitezke. Honaino beste 10 minutu eman ditugu.

Lehenko bidegurutzera itzuliko gara eta 5 minututan bidearen ezker aldean geratzen den putzu txiki bateraino jeitsiko gara. Horma zahar batzu erreferentzi moduan hartuz, haietara heldu orduko eskumaldeko bidezidor batetik **13** jeitsiko gara, beheko aldean meazulo modernoago baten sarrera, eta hiru kiskaltze labeen aztarnak ere (non burdin karbonatoak tratatzen baitziren) beha daitezke.

Bidetik jarraituz, eskumaldean korridore batzu ageri dira: lurrizaleko galeriak dira. 5 minututan Parkotxa aintzirara hel daiteke, aspaldian mea garbitokia izandakoa eta gaur eguneko arrantza eskola kokatzen den uharka bilakatua.

Aintziratik, beste 5 minututan, Larrainetatik La Arboledara doan errepidera helduko gara **14**. Hemendik "Peñas Negras" I.I.Z.ra, Muskizera doan asfaltozko mendi errepidetik, 30 bat minututan hel daiteke.



### "Blondies" meategiko errestabidea

**180 m.** Goibehea: Ibilbidean zeharko gutxi gora beherako goibehea 180 metrokoa da, I.I.Z.ko 460 metroko altueratik, Bodovallerako begiratokiko 280 metrotako altuerara.

**2,30 h.** Orduetgia: Gutxi gora beherako orduetgia 2 ordu eta 30 minututakoa da, hurrengo era honetan banaturik:

- 1. zatia: I.I.Z.-Triano-Las Calizas-Burzakoko tunela: Ordu bat eta 50 minutu.
- 2. zatia: Tunela- Ostion-Blondies-Parkotxa: 40 minutu.



Zailtasuna: Ibilbide samurra, bere zailtasunik handiena Bodovalle (Gallarta) ingurutik Trianorainoko igoeran datza, bai eta ibilbidean zehar aurkituko ditugun hainbat aldai eta bideren nahaspilan, zeinek errakuntzara ekar baitezake.

### IBILBIDEAREN EZAUGARRIAK

Industri arkeologia: ibilbidea ustiaguneetan zehar burutzen da, produkzio fase guztien (erauzketa, zamaketa eta garraio-tzea) zenbait aztarna geratzen direlarik.